



Pacto de los Alcaldes
para el Clima y la Energía

ASTEKLIMA 2020
Eusko Klimateko Aldaketaren Astea
Semana del Cambio Climático de Euzkadi

Klima-aldaketari egokitzea udal esparruan: baliabideak eta kasu praktikoak



Udalerriak klima-aldaketari egokitzeari buruzko estatuko jardunaldia

2020ko martxoak 25

Eusko Jaurlaritzaren egoitza Lakua eraikineko auditoriuma
Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz



Klima-aldaketari egokitzea udal esparruan: baliabideak eta kasu praktikoak

Udalerrriak klima-aldaketari egokitzeari buruzko estatuko jardunaldia

Ekitaldi hau antolatuta da martxoaren 21etik 29ra izango den "Euskadiko Klima-Aldaketaren Astea - ASTEKLIMA 2020" barruan egingo diren ekitaldien esparruan.

Alkateen Ituna mugimenduari lotutako Bulegoak, Ihobe sozietate publikoaren lankidetzarekin, jardunaldi tekniko bat antolatu du klima-aldaketari egokitzeko udal planei buruz. Udal esparruan egokitzeko planei lotuta dauden jardunbide egokiak aurkeztuko dira bertan, eta mota horretako politikak ezartzen ari diren hirien esperientzia azalduko da, baita lorpenak eta zailtasunak aztertu ere.

Jardunaldian, bestalde, Europako Batzordearen Klimaren Zuzendaritza Nagusiko ordezkari batek Erkidegoaren etorkizuneko politika azalduko du; horrez gain, Euskadin eta Nafarroan, udal mailan dauden arriskuak eta ahultasunak aztertzeke baliabideak zein diren ere azalduko da, horiei esker aipatu politika ezartzeko neurriak hartuko baitira.

Klima eta Energiarako Alkateen Itunean tokiko milaka gobernu daude batuta, eta denek erabaki dute EBeko klimari eta energiari lotutako helburuak ezartzea.

2008an eratu zen Alkateen Itun hori Europan, EBeko klimari eta energiari lotutako helburuak ezartzeko eta betetzeko konpromisoa hartu zuten tokiko gobernuak batzeko asmoz.

Gaur egun, tokiko eta eskualdeko 10.000 agintaritzatik gora batzen dira bertan, eta denek aprobetxatzen dituzte hainbat eragile tartean dituen mugimendu horren alderdi onak. Horrez gain, Itunak berariaz sortutako bulegoen laguntza teknikoa eta metodologikoa du.

Agenda

- 08:30 – 09:00 Erregistroa.**
- 09:00 – 09:15 Irekiera instituzionala.**
Iñaki Arriola López. *Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua*
Valvanera Ulargui. *Klima Aldaketaren Espainiako Bulegoaren zuzendari nagusia. Espainiako Gobernua*
- 09:15 – 09:45 Klima-aldaketaren Europako estrategia, finantzazio-bide berriak.**
Manuel Carmona Yebra. *Klimaren Zuzendaritza Nagusia, Europako Batzordea (berresteko)*
- 09:45 – 10:15 Klima-aldaketari egokitzeko Espainiako estrategia, udalerrientzako aukerak.**
Trantsizio Ekologikoko Ministerioa
- 10:15 – 10:45 Alkateen Hitzarmenaren berritasunak, Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Planaren plantilla berria.**
Miguel Morcillo. *Alkateen Hitzarmenaren bulegoa*
- 10:45 – 11:00 Galderen txanda.**
- 11:00 – 11:30 Atsedendaldia.**
- 11:30 – 12:00 Ekintza klimatikoa: Euskadiko udalerrriak klima-aldaketari egokitzeko tresnak.**
M³Mar Alonso. *Ekintza klimatikoaren arloko koordinatzailea*
Ihobe, *Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikokoa. Eusko Jaurlaritza*
- 12:00 – 12:30 Nafarroako udalerrien arriskuen eta urrakortasunen analisia, eta Klimarako eta Energia Jasangarrirako Ekintza Plana egitea.**
Victor Aierdi. *Arloburua, Lursarea*
- 12.30 – 13:00 Granollerseko Klima-aldaketari Egokitzeko Plana —ez egokitzearen prezioa—.**
Albert Camps. *Alkateordea, Ingurumeneko zinegotzia. Granollerseko Udala*
- 13:00 – 13:30 Bullaseko Klima-aldaketari Egokitzeko Plana.**
Juan Pedro Muñoz Gea. *Bullaseko Udala*
- 13:30 – 14:00 Konponbide naturalak: udal-erresilientzia hobetzeko aukerak.**
Gorka López. *Ingurumeneko teknikaria. Balmasedako Udala*
- 14:00 – 14:15 Galderen txanda.**
- 14:15 Ondorioak.**
- 14:30 Lunch.**

